

## Koxkorak

**E**rraza da sumindua izaten, irakurri diozu norbaiti, baina lurtean kondena- tuak, benetakoak, ez du aukerarik, ezin du erositasuna edo soraitasuna aukeratu, duintasunarekin ala barik bai- no ezin du hautatu. Benetako bazter- tuak zein ote diren jarri naiz pentsa- tzen, hilean mila euroko soldata du- tenak, hipoteka samara lotuta dabiltzanak, pentsio-plan pribatua ordaintzeko haina ez daukate- nak, oporretan Tailandiar joa- teko modurik ez dutenak, zein dira baztertuak?

Aspaldian entzun dudana gauzarik onena hauxe da: hain da perfektua Zarautz,

hain da perfektua Donostia, ezen etorri- nak ez baita ikusten.

Sumindua gara, baina klasea dugu, eta ez dugu nahi pobrerik inguruan, ziki- nak dira, ez jakin zein eritasun dakarten euren lurraldetik, eskean hasten dira, eta azkenean haurrak bahitzen dituzte, hala zabaldu da zurrumurra, lapurrak dira, dendetan sartzen dira gauze, ta- bernetan, tabakoa osten dute, pobreak izanagatik bizioak dituzte, kalean moz- kortzen dira egun argiz, doazen le- kura doazela, izua eragiten dute.

Aspaldian irakurri dudana gau- zarik onena hauxe da: monarkian izan edo komunismoan izan, burges koxkorak ez du burua nekatuko ez baldin bada txanponen alde.

Koxkorak dira gure as- moako oro.



**Jira**

Xabier Gantzarain

## Trukea

**B**ost urtez egon da bahituta, eta fa- miliaren hutsa sentitu du. Horrega- tik nahiko luke preso palestinarrek ere euren familiak besarkatu ahal izatea. Milak baino gehiagok lortuko dute. Hori- xe izan baita Gilad Shalit aske uzteko Hamasek Israelgo Gobernuari jarri- dion baldintza. Askok pentsatuko du ez dela truke justua mila baten tru- ke, baina Hamasek ez dauka auke- rarik mila israeldar bahitzeko. Nahi- koa meritu da garaiotan bahitu- bakarria bost urtez man- tentzea ere polizia aurki- tuko gabe. Israelek, oster, estatutu boteretsua denez, milaka palestinar hartzen



**Bira**

Onintza Enbeita

ditu preso. Komunikabideek eta botere- ak terroristatzat hartzen dituztenek bahitu egiten dute jendea, baina est- atuek preso eramaten dituzte. Edozelan ere, egun handiak izango dira atzokoa eta gaurkoa Gazan eta Zisjordanian. Mi- la seme-alaba bueltan datoz etxera.

Pentsatzen jartzen naiz eta nire herrian ez gara mila baino askoz gehiago bizi. Asko dira mila; atera kontu, beraz, zen- bat izango diren barruan utzi dituz- tenak. Ez baitu Israelek ahule- ziarik erakutsiko Hamasen au- rrean. Mila baten truke ikusi dugu eta azterketa kuantitatibo bat-batekoan asko dela pentsa- tu arren, kontuz! Israelek tratua onartu badu, solda- dadu baten bitzita baino askoz ere gehiago irabazi dezakeelako izango da.

**Zuzendaria:** Martxelo Otamendi  
**Zuzendariordea:** Enekoitz Telleria  
**Edizio arduraduna:** Andoni Alvarez  
**Argitaratzailea:** Euskal Editorea SM  
**Publizitatea:** Bidera publizitatea  
**Leges gordailua:** SS-0662/03  
**Batzorde parekidea:** 0712184059

**Egoitza nagusia:** Martin Ugalde kultur parkea. Gudarien Etorbidea, z/g, 20140 Andoain.  
**Telefonoa:** (0034) 943-30 40 30  
**Faxa:** (0034) 943-30 09 43  
**Webgunea:** www.berria.info  
**Posta elektronikoa:** berria@berria.info  
**Publizitatea:** publi@bidera.eu  
**Harpidetza saila:** (0034) 943-30 43 45

**Date:** 19/10/2011  
**Exemplaire:** 2.583  
**Editore:** Euskal Editorea S.L.  
**Directeur de publication:** Martxelo Otamendi  
**Comission paritaire:** 0712184059  
**Delegation Labourd:** Lisses 3, 64100-Baiona. Tel.: (0033) 559256220. Fax: (0033) 559254303. E-mail: lapurdi@berria.info

**ORDEZKARITZAK**  
**Araba:** Bizenta Mogel, 6. Posta kodea: 01008 Gasteiz. Telefonoa: 945-15 04 52. Erredakzioko faxa: 945-14 83 07. Posta elektronikoa: araba@berria.info.  
**Bizkaia:** Uribitarte kalea, 18, 3. C. Posta kodea: 48001 Bilbo. Telefonoa: 94-435 26 00. Erredakzioko faxa: 94-423 49 75. Posta elektronikoa: bizkaia@berria.info.  
**Lapurd:** Lisses, 3. Posta kodea: 64100 Baiona. Telefonoa: 559-25 62 20. Faxa: 559-25 43 03. Posta elektronikoa: lapurdi@berria.info.  
**Nafarroa:** Iratxe Monaste- rioa, 45, 13. Posta kodea: 31011 Iruñea. Telefonoa: 948-36 66 22. Publizitatea: 948-36 66 23. Posta elektronikoa: nafarroa@berria.info.

**berria**

# Londresetik Kukutzara

**Jon Mirena Landa**

EHUko Zigor Zuzenbideko irakaslea

**A**gian irakurleak gogoratu du uda honetan, Londresen hain zuzen ere, istilu ugari ezustean gertatu zirela. Dena hasi zen poliziak gazte bat tirokatu eta hil zue- nean. Horren aurkako auzo-protes- ta gatazka orokor bilakatu zen, hiri osoan zehar mota guztietako deli- tuak nagusitzen ari ziren bitarte- an. Eta Londresen ez ezik beste hi- rietan ere (Manchester, Bristol, Birmingham...). Istilualdi gogorre- nak abuztuko ia astebebe osoa iraun zuen, gau eta egun, eta opo- rretan ziren politikariek, haien arte- an David Cameron lehen minis- troa berak, haien atsedena eten eta lanera itzuli behar izan zuten, aparteko egoera larriari aurre egi- teko.

Holako indarkeria-leherketa zergatik gertatu zenari buruz asko eta luze eztabaidatu da bai Erresuma Batuan bai eta kanpoan ere. Une honetan, ordea, azpimarratzekoa dena zera da: istiluei aurre egiteko zelako eztabaida publikoari ekin zi- tzaion han poliziak jardun behar zuten moduari zergokionez. Eta ho- rren inguruan hona hemen traza batzuk: poliziek ez dute erabiltzen gomazko pilotak botatzeko eskope- tarik ezta antzeko diren su-armar- rik; jende-multzoaren aurrean ba- besgarriak dituzte eta beraien bo- rrak edo defentsa-makilak erabili ohi dituzte; adingabeak istilu-le- kuetan baldin badira jarduteko protokoloak desberdinak dira eta,

hortaz, jende-multzoak sakabana- tzeko modua ere desberdina izaten da.

Ohikoak diren esku hartzeko modu horiek ez zuten emaitzarik ematen Londresetik uda-istiluetako lehenengo fasean eta hiriburua- ren hainbat lekutan kontrola gal- dua zuten poliziek. Erreakzio pu- bliko-poliziala zera izan zen: eskatu telebistaz eta irrati- z eta beste edozein komunikabide- gurasoek edota arduanadunek adinga- beak kaleetatik erretiratzeko, behar bezala kale-mailan polizia mu- gitu ahal izan zedin. Beste alde batetik poliziak elkarrizketa inten- tsifikatu zuten hiri esparru gataz- katsuak herri-ordezkariek, arazoei poliziak eta herriak, elkar- rren eskutik, heltzeko. Larrialdi- tako gobernu koordinazio-ba- tzordeak («Cobra» izenekoak), ar- mada bera esku hartzeko aukera mahai-gainean eduki arren, bere- hala baztertu zuen, soldaduak ka- lean jende-multzoak maneiatzeko trebeziarik ez, emaitza ikara- garria izan zitekeelako. Azkenik ur-kanoiak erabiltzea komeni ote zen eztabaidagai nagusi bilakatu zen.

Erresuma Batuko poliziaren jar- dueretan gehiegikeriak ere izan dira historikoki, nabarmenak gai- nera. Gogoratu besterik ez dago, besteak beste, Ipar Irlandan izan- dako kapitulu beltza. Baina hang- o gizarteetan, oro har, poliziaren jar- duera-mugak eztabaidatzen dira normaltatsun osoz. Eztabaidan po- litikariek parte hartzen dute, bai- na askotan goi mailako polizien adierazpen profesionalak entzuten eta errespetatzen dira, baita uni- bertsitate-irakasleek, aditue-

nak eta giza eskubideen ekintzala- rienak ere. Londresen izandako is- tilu larrietan (2.000 atxilotu inguru) inori ez zaio burutik pasatu po- lizien jardura edo indarkeria mailak eztabaidatzeagatik, indar- keriazale edo halako salaketa era- biltzerik ez eztabaida publikoan ezta alderdien arteko ika-miketan ere.

Eta gure artean? Kukutzaren ka- suan poliziaren jardura eztabai- datzeko prest egon beharko ginat- eke, bertan dauden arrazoizko edo arrazoigabeko jabetza-eskaerak al- de batera utzita. Ertzaintza 8.000 mila lagunek baino gehiagok osa- tzen dute eta profesional onak egon badira, kontrolik gabeko agenteak ere diren bezalaxe. Ez da- go sinesterik beti ondo, txukun, eta behar den indarkeria erabiliz jar- duten dutenik. Eta ez da kontu par- tikularra: polizia guztietan gerta- tzen da. Berariaz doa, indarra era- biltzearekin batera, aldiz aldiko gehiegikeria. Orain dagoen Barne Saillburua edo aurrekoen esanak, ordea, hitzez hitz sinestuz beharko bagenitu, poliziek, guztiek eta beti, azken 30 urteetan behar bezala jar- dun dute gure artean. Eta horien aurka kritika bat botatzen asuar- tzen dena, kritika eraikitzailea eta fundamentuzkoa izaten ahalegin- du arren, indarkeriazaleekoa izat- eko leporatuko zaio edota ez dakit zein izkutzuko asmo politikoa gaiz- tokoa. Badirudi, barne saillburu ona dela, «bere jendea» defenda- tzen duena, kosta ahala kosta: eta hori ez da demokrazia osasuntsua- ren ikuspegitik egokia.

Kukutzaren testuinguruan ikusi ditugunak ikusirik gehiegikeriak ikertzeko lehenengo oinarria egon

badago. Baina nor ikertu? Erant- zukizun penalak balira, epaileek. Baina hain urrun joan gabe, Erre- suma Batuan polizian kontrolatze- ko Batzorde Independente bat dute (Independence Police Complaints Commision IPCC), istiluek sortzen direnean ahots askeago eta sines- garriago bat eduki ahal duena, sa- latzaile eta poliziaren bertsioen ar- tean objetiboki kokaturik.

Estatu demokratikoetan era- kunde oro kontrolatu beharra dago eta horien artean, nola ez, po- lizien erakundea. Poliziak di- tuten jarduteko protokoloak ezta- baidatzea edozein gizarte demo- kratikoren eginkizun halabarrezkoa da, horren bitar- tez ere, polizia herrian sustraitu eta herriak polizian ere konfida- tza handiagotzeko aukera ahalbi- detzen baita.

Eztabaidatu beharko genuke zergatik hain erraz eta hainbeste eskopetak erabiltzen diren hirita- rrek sakabanaitezko; zergatik ez di- ren publikoak egiten poliziek di- tuzten protokoloak; zergatik mai- zegi ikusten ditugun poliziek jabetzen modu baketsuan protestaka dabilzan hiritarrek; zergatik eta zein puntutaraino patrikako tele- fonoak edota kamerak antzemate- ko neurria justifikatu daitekeen... Eta hori guztia, demokrazia hobet- zekotan, polizia ere hobetu behar baitugu: eta polizia hobetzea ez da politikarrien monopolioa, are gu- txiago barne-saillarena. Herrita- rrok eta herri-etzabaidak lagundu beharko luke, poliziek gu, gure seme-alabak, protestalariak eta mota guztietako pertsonak nola tratatu behar dituzten zehazten eta adosten.

Badirudi, «normalizatu» behar omen den herri honetan, berriro ere «anormala» guztiz den aitzakia beste behin erabili dela, batzuk eta besteak nahastearen bitartez, ezta- baida saihesteko: alegia, batzuek indarkeria erabili dutenez, ez deza- gun aitortu okerrak eta gehiegike- riak gertatzen direnik, eta ez deza- gun utzi demokraziaren hausnar- keta kritikoak polizia-eredua hobet- zen... noiz arte?